

2. koaderno. Programaren garapena



[Bolivia]

Genero ekitatea eraikitzea Boliviako Nor Cinti eta Sud Cinti probintzietan



Sarrera

1998az geroztik, Zabalketa elkarteak¹ eta Ayni Zentroak² Boliviako Los Cintis eskualdean lan egiten dute, hezkuntzan, ekonomian eta politikan gizonen eta emakumeen arteko ekitatea lortzeko eta genero indarkeria desagerrarazteko.

2012an, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak “Construcción de la Equidad en Los Cintis” izeneko 3 urterako programa onartu zuen. Programa horren xedea zen **emakumeek presentzia eta protagonismo handiagoz parte hartzea tokiko ordezkarietako espazioetan eta erabakitze espazioetan**. Horretarako, Ayni Zentroak eta Zabalketarako 3 esku-hartze ildo hauetan jardun dute:

1. Emakumeen gaitasunak indartzea, bakarka nahiz taldeka modu aktiboan parte hartzeko ordezkarietako espazioetan eta erabakitze espazioetan.
2. Sindikatueta eta udal gobernueta gaitasunak indartzea, emakumeen partaidetza handiagoa lortzeko.
3. Gizarterako balio eta jarrera berrietan oinarritutako prestakuntza ematea, genero ekitatearen kultura sortzeko prozesua indartzeko.

Programa hori Camargo, San Lucas eta Culpina udalerrietako 28 nekazari komunitatetan garatu dute. Udalerri horiek Nor Cinti eta Sud Cinti probintzietan kokatuta daude, Chuquisaca Departamentuan.

Gutxi gorabehera 10.500 pertsonak jaso dute programaren onura zuzena; horien erdiak baino gehiago 18 eta 60 urte bitarteko emakumeak izan dira. Eskualde horretako ekonomia jarduera nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira, eta, amaitutako ikasketen mailari dagokionez, biztanle gehienek, emakume zein gizon, lehen hezkuntzako 3. mailatik 5. mailara bitarteko ikasketak dituzte amaituta.



Dokumentu honetan, programa horren bidez gauzatu-tako ekintzak eta lortutako emaitzak datoz jasota, baita hura garatzean sortu diren zailtasunak eta hurrengo proposamenerako erronka berriak ere.

1. esku-hartze ildoak

Emakumeen gaitasunak indartzea, bakarka nahiz taldeka modu aktiboan parte hartzeko ordezkarietako espazioetan eta erabakitze espazioetan.

Emakumeek BAKARKA PARTE HARTZEKO gaitasunak indartzeko lana **buru diren emakumeen prestakuntzarako** programa baten bidez gauzatu da. Prestakuntza horretan 84 emakume parte hartu dute guztira (3 emakume komunitate bakoitzeko). Aukeraketaren oinarria emakume horiek beren burua gai-

1 Zabalketa elkarteak GGKE bat da, eta Getxon du egoitza nagusia, Euskal Herrian. Nazioartean garapenerako lankidetzaren sektorean lan egiten du, eta tokian-tokian, berriz, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruan. www.zabalketa.org

2 Ayni Zentroa Boliviako GGKE bat da. Emakumeek bizi kalitate hobea izan dezaten eta partaidetza sozial eta politikoko espazioetan merezi duten tokia lor dezaten lan egiten du, baita euren gaitasunak gara ditzaten eta euren eskubideez balia daitezen ere. www.centroayni.org



Bi emakume, euren komunitateko garapena hobetzeko proposamenak azaltzen (Centro Ayni)

tzeko zuten interesa eta konpromisoa izan ziren, baita komunitatearen barruan aldeaz aurretik partaidetza aktiboa eduki izana ere.

Prestakuntza programak 4 modulu izan ditu: generoa eta indarkeria; antolakuntza eta planifikazioa; komunitatearen kudeaketa, eta proiektuen kudeaketa. Irakas-teko metodologia buru diren emakumeen eskolatze mailara eta haietako batzuen analfabetismora egokitu da. Hortaz, nagusiki taldeko dinamikak, jolasak, marrazkiak, bideoak eta *roll-playing* teknikak erabili dira, besteak beste, eta hizkuntza nagusia kitxua izan da, hori baita emakumeen komunikazio hizkuntza ohikoa. Zenbait eduki espezifiko lantzeko gaztelaniazko liburuxka batzuk ere erabili dira, hala nola Konstituzioko zenbait artikulua eta Boliviako zenbait lege lantzeko.

Idatzizko dokumentuak eta gaztelaniazkoak erabiliz gero, ikaskuntza are zailagoa da irakurketa eta idatzketa ondo menderatzen ez dituzten emakumeentzat; hala ere, lehen begiratuan erabat kaltegarria badirudi ere, haietako batzuek positiboki balioetsi dute, eta

bitarteko horiek erabil daitezela eskatu dute, onartzen baitute irakurtzen eta idazten ikasi behar dutela erakundearen aurrean izapideak egin nahi badituzte. Emakume batzuek gaikuntzetan beti bi hizkuntzak (kitxua eta gaztelania) erabili behar direla ere adierazi dute; hartara, gobernuekin biltzeko beste espazio batzuetan erabiltzen den terminologia ikasiko dute. Hala ere, ordenagailuak erabiltzen ikasi nahi dutela ere adierazi dute, bai euren dokumentuak sortzeko, bai Internet erabiltzeko.

Gaikuntzako modulu bakoitzak hiru egun iraun du, eta hiru horiei beste bi egun erantsi behar zaizkie, emakumeek euren komunitateetatik oinez etorri eta berriz itzultzeko behar dituztenak. Emakumeentzat zaila da hainbeste egun etxetik kanpo igarotzea. Euren ahaleginak eta denborak argi erakusten dute jasotzen duten gaikuntza asko interesatzen zaiela eta balio handia ematen diotela.

Senarraren babesa funtsezko faktorea da buru diren emakumeen gaikuntzan. Gehien-gehienek senarraren



Adela Velasquez, abian duen erlezaintza projektuko erleak zaintzen (Zabalketa)

babesa dutela baieztatu dute, eta haren laguntzari esker parte har dezaketela gaikuntza saioetan. Horrez gainera, aipatu dute senarrak etxeko lanak eta seme-alaben zaintza partekatzen hasi direla, eta, zenbait kasutan, senarrek berek laguntzen dietela dokumentuen irakurketan edo idazketan. Nolanahi ere, haietako batzuek oraindik ez dute horrelako babesik, baina gaikuntza saioetara joaten dira, senarrak ados ez badaude ere.

Prestakuntza horrek izan ditu hainbat emaitza: emakume horiek partaidetza handiagoa izan dute komunitateko biltzarretan; emakume elkarte berriak osatu dituzte, eta aurretik zeudenak indartu egin dira; indarkeriaren aurkako borrokarako batzordeek babes handiagoa jaso dute, eta pertsona gehiagok eskuratu dituzte nortasun agiria eta jaiotza ziurtagiria.

Emakume horiek 12 ekoizpen proiektu sartu dituzte udalerrietako UPOetan (Urteko Programazio Operati-

boa). Proiektu horien % 80 eztiaren ekoizpenarekin lotuta daude, baina beste proposamen batzuk ere aurkeztu dituzte, emakumeek diru sarrerak sortzeko aukera izan dezaten. Proposamen horiek erlazio-natuta daude mertxikaren ekoizpena hobetzearekin, ura etxeetaraino bideratzearekin, mikro ureztatzea instalatzearekin eta barazkiak ekoiztearekin. Etxebizitzak eta haien irisgarritasuna hobetzeko proposamenak ere egin dituzte, hala nola eraikuntzan material hobeak erabiltzea, Chagasen gaixotasuna³ prebenitzeko fumigatzea eta batetik bestera ibiltzeko bideak eta zubiak eraikitzea.

Proiektu horiek erakusten digute emakumeek gaitasun handiagoa dutela beharrak identifikatzeko, bai komunitateenak, bai eurenak. Izan ere, ura bideratzea proposatzean, familia osoaren beharra identifikatzeaz gain, aipatu dute normalean eurek joan behar izaten dutela ur bila.

Buru diren emakume gaitu horiek, gainera, **zuzeneko laguntza** jaso dute euren komunitateetan bertan. Era horretan, sendotu egin dute 4 moduluetan ikasitakoa; aholkularitza pertsonalizatuagoa jaso dute euren proiektuak abian jartzeko, eta buru gisa bete behar duten eginkizunean sortutako zalantza praktikoak ebatzi ahal izan dituzte, adibidez komunitateetako biltzarretan parte hartzean sortutakoak.

Horrez gainera, emakume horiek **laguntzaile gisa aritu dira aldi batez**, eta arazo bertsuak zituzten beste komunitate batzuetako emakume batzuen esperientzia arrakastatsuak ezagutu ahal izan dituzte Valles Cruceños izeneko boliviarr eskualdean. Deigarrienak iruditu zaizkien esperientziak uraren kudeaketarekin erlazio-natutakoak izan dira, bai giza kontsumorako uraren kudeaketarenak, bai ekoizpeneko lursailak ureztatze uraren kudeaketarenak, baita diru sarrerak sortzeko aukera eskaintzen duten esperientziak ere, hala nola ezti, barazkiak eta frutak ekoizte bideratutakoak. Euren komunitateetara itzultzean, emakume horietako batzuek fruta arbolak landatzeko baimena eskatu diote alkatetzari.

3 Parasitoek eragindako gaixotasun tropikala, normalean kronikoa. Vinchuca izeneko intsektu batek eragiten du, Trypanosoma cruzi parasitox transmitituta. Gehienetan, Chagasen gaixotasun kronikoak bihotzari egiten dio kalte.



Nazioarteko Topaketan taldeko lan bat egiten (Zabalketa)

Esku-hartze ildo honen baitan, buru diren emakumeek **udalerrien arteko 2 topaketa** (Camargo, Culpina eta San Lucas) egin dituzte, esperientziak trukatzeko eta emakumeak gogoeta egitera, elkarrekin hitz egitera eta akordioak lortzera bultzatzeko, euren gain har ditzaten zenbait konpromiso eta abian jar ditzaten euren komunitateetan genero ekitatea lortzeko prozesua indartuko duten ekimenak.

Emakume horiek izenpetutako konpromisoen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu: neskatxen eta neska nerabeen eskolatzea sustatzea; komunitateetako biltzarretan parte hartzen jarraitzea, eta ingurumena zaintzea.

Halaber, **buru diren emakumeen nazioarteko topaketa** bat ere egin da. Topaketa horretan 100 bat emakumek parte hartu dute, bai programako emakumeek, bai Boliviako beste eremu batzuetako emakumeek, baita Kolonbiako, Peruko eta Euskal Herriko emakume batzuek ere.

Topaketa horretan, emakumeek 3 arlotako lan estrategiak, aurrerapenak eta zailtasunak ezagutu eta partekatu dituzte: genero indarkeria, emakumeen partai-

detza politikan eta emakumeek diseinatu eta kudeatutako ekoizpen proiektuak.

Horrez gainera, programan parte hartzen duten 3 emakume boliviarrak Euskal Herrira bidaiatu dute, Ayni Zentroko teknikari batek lagunduta, zuzenean ezagutzeko euskal emakume nekazariaren errealitatea.

Programa amaituta, alderdi kualitatiboari erreparatuta, nabarmena izan da emakumeen autoestimua handitu egin dela: segurtasun handiagoa dute beren buruagan, euren eskubideak onartzen dituzte (gizonen eskubide berberak), euren gaitasunak balioesten dituzte (ideiak emateko, proposamenak egiteko eta gizonekin batera lan egiteko) eta erabakietan parte hartzeko beldurra galdu dute.

Nolanahi ere, logikoa denez, emakume talde batzuek autoestimua hobekuntzan eta parte hartzeko eskubidearen onespenean lanean jarraitu behar dute: zenbaitek beste emakume batzuei adierazten dizkiete euren ideiak, baina oraindik ez dute nahikoa segurtasun ideia horiek gizonen aurrean adierazteko; beste batzuek oraindik ez dute ongi ulertu zer eskubide di-



Maritza Mamani, Camargo udalerriko zinegotzia (Zabalketa)

tuzten, eta beste batzuek, kasurik muturrekoenean, ez dute onartzen emakumeek gizonen baldintza beretan parte hartu ahal izatea.

Ezagutza eta gaitasun horiek eskuratuta, azken urteetan gero eta emakume gehiagori proposatzen diete komunitatean hainbat kargu betetzea, nekazarien sindikatuko⁴ zuzendaritzan edo beste erakunde batzuetan, hala nola alkatetzan edo gobernazioan, eta gero eta gehiagok onartzen dute eskaintza. Emakume batzuek zenbait kargu betetzeak hori bera egitera animatzen ditu beste emakume batzuk. Emakumeek zein gizonek aldaketa nabarmena sumatu dute emakumeek komunitatean duten partaidetzan, karguak betetzen hasi direlako ez ezik, baita gero eta emakume gehiago ausartzen direlako komunitateko biltzarretan euren iritzia adieraztera eta euren proposamenak aurkeztera.

Programa ezarri den komunitateen % 70n emakumeak dagokien sindikatuetakoko kide egiten ari dira; hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidearekin parte hartzen ari dira komunitateetakoko biltzarretan, eta dagoeneko

BILAKAERA PERTSONALA

2008an, 18 urte zituela, Maritza AYNi Zentroarekin gaitzen hasi zen hainbat arlotan: giza eskubideak, lidergoa, generoa, familia barruko indarkeria, proiektuen prestaketa eta autoestimua, besteak beste.

Formakuntza horrek gaitu egin du udalerrian kargu garrantzitsuak betetzeko; adibidez, genero ikuspegia aintzat hartu zuen gutun organikoa prestatzeaz arduratu zen udal batzarreko presidenteordea izan da, baita Bartolina Sisa emakumeen elkarte sozialeko idazkari exekutiboa ere.

2014an, Maritzak ehunen eta josketaren arloko prestakuntza jaso zuen, AYNi eta FAUTAPO erakundeek antolatutako ikastaro batean. Arlo horretan abilezia handia zuenez, beste emakume batzuen formatzaile bihurtu zen, eta horrek soldata bat irabazi, eta familian beste diru sarrera bat izateko aukera eman zion.

2015ean, Maritzak Euskal Herrira bidaiatu zuen, landaguneko euskal emakumeen esperientziak eta errealtateak ezagutuz formakuntza eta lidergoa sendotzeko; urte horretan bertan zinegotzi kargua onartu zuen hurrengo 5 urteetarako Camargo udalerrian. Alkatetzan Genero eta Giza Eskubideen Batzordeko burua ere bada, eta hainbatetan izendatu dute bitarteko alkate.

Orain, 26 urterekin, Maritzak lan politikoa eta ikasketak uztartu nahi ditu; helduentzako hezkuntza alternatiboko zentro batean ikasten ari da, bigarren hezkuntzako ikasketak amaitzeko.

52 emakume daude hainbat kargutan (sindikatuetakoko kargu guztien % 35 betetzen dituzte).

Bestalde, esku hartu den 3 udal gobernuetan dagoeneko 11 emakume zinegotzi daude, eta Ayni Zentroko proiektuetan prestakuntza jaso duen emakumeetako bat Aukera Berdintasuneko idazkaria da Chuquisaca Departamentuko gobernazioan. Buru diren emakumeentzako programan parte hartu dutenen erdiak hainbat kargutan eta espaziotan parte hartzen ari dira.

⁴ Nekazarien sindikatua: komunitatearen antolakuntza modua da. Pertsonak afiliatu egiten dira, eta zuzendaritza baten bidez antolatzen dira. Kargu gorena idazkari orokorrarena da. Komunitatearentzat egindako borondatezko zerbitzu bat da. Afiliatuta dagoen familia bakoitzak 8 bolivianotik 10 bolivianora arteko kuota bat ordaintzen du urtean.



Udalerrien arteko bigarren topaketan parte hartu zuten bost emakume buruzagi (Zabalketa)

Ayni Zentroko taldeak badaki emakumeen analfabetismoa dela haiek gaitzeko muga handienetako bat; hori dela eta, ahultasun hori gainditzeko lanean jarraitu behar dela uste du.

Gaikuntza gizonei ere eskaintzeari dagokionez eta emakumeek kargutan parte hartzeari dagokionez, oraindik mesfidantza dago, eta erresistentzia, baina emakumeek adierazi dute pixkanaka gero eta gizon gehiagok babesten dutela euren emazteek lantegi hauetan parte hartzea.

Emakumeek TALDEAN PARTE HARTZEKO gaitasunak indartzeari dagokionez, **gaikuntza lantegiak** egin dira, bai dagoeneko zuzendaritzako karguetan zeuden emakumeentzat, bai dagoeneko emakume elkarteetako bazkide zirenentzat.

Lantegi horiek komunitateetan bertan egin dira, emakumei parte hartzeko erraztasunak emateko. Edukiak 4 modulutan banatu dira: antolakuntza, planifikazioa, lidergoa eta proiektuen kudeaketa. Ayni Zentroko taldeak taldeko dinamikak erabili ditu, emakumeek dagoeneko ezagutzen dituztelako eta oso emaitza onak eman ohi dituztelako.

Lantegi horien emaitza gisa, 10 emakume elkarte berri sortu dira 10 komunitatetan (2 Camargon, 6 San Lucasen eta 2 Culpinan). Elkarte horien guztien xedea da ekoizpen proiektuak kudeatzea, eta ezaugarri hori bat dator emakumeen kezka eta interes nagusi batekin: diru sarreren iturriak sortzea familien ongizatea hobetzeko.

10 elkarte horietako bakoitzak bere estatutuak eta barne arauak ditu, eta, horrez gainera, hainbat espaziotan parte hartzeko eta ondasunak nahiz zerbitzuak kudeatzeko aukera ematen dien izaera juridikoa lortu dute. Era berean, proiektu ideia identifikatuta dute. Proiektu gehienak erlezaintzakoak, barazkien ekoizpenekoak edo frutagintzakoak dira. Elkarreentako batek lehiaketa batean aurkeztu du erlezaintzako proiektua, eta sari gisa ekoizpenerako 58 mila bolivianotik gorako finantzaketa eta 4 hilabeterako laguntza teknikoa jaso ditu. Nabarmenezkoa da elkarte horrek 10 mila bolivianotik gorako kontrapartida bat jarri duela (proiektuaren % 15, gutxi gorabehera).

10 elkarte horiek **zuzeneko laguntza** ere jaso dute, eta hori funtsezkoa izan da izaera juridikoa izapidetzeko; izan ere, emakumeetako askok ez zuten inoiz egin ho-



Partaidetzazko dinamika, genero ekitatearen arloko formakuntzarako (Centro Ayni)

rrelako izapiderik, eta batzuk ez ziren inoiz egon Gobernazioan, ohikoa baita emakumeak ez irtezea euren komunitatetik edo udalerritik.

Programa amaituta, beharrezkotzat jotzen da ekoizpen proiektuen kudeaketa teknikoarekin, komertzialarekin, administratiboarekin eta finantzarioarekin lotutako alderdietan lanean jarraitzea eta sakontzea.

2. esku-hartze ildoak

Sindikatueta eta udal gobernuetan gaitasunak indartzea, emakumeen partaidetza handiagoa lortzeko.

Nekazarien sindikatuei dagokienez, Ayni Zentroak zenbait urte daramatza sustatzen emakumeen partaidetza aintzat hartuko duten estatutuak eta arautegiak izan ditzatela, Konstituzioko 260. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zeregin horrekin jarraitzeko, programa honen baitan **sindikatueta gizonetzko eta emakumezko agintariei**

gaikuntza eskaini zaie kudeaketako gaien gainean, betiere genero ikuspegia aplikatuta. Gaikuntza hori buru diren emakumeei eskainitakoaren aldi berean gauzatu da, gaikuntza zentro berberetan eta egun beretan, gaikuntza plan bera erabiliz, eduki bereberekin, metodologia berberarekin eta antolakuntzako logika berberarekin.

Lan estrategia hori positibotzat jo da; izan ere, 2 taldeek lanerako espazioak eta uneak partekatuta, sindikatueta gizon-emakumeak eta buru diren emakumeak gehiago hurbildu dira elkarrengana, eta haien arteko elkarriketa sustatu da, baita guztien arteko azterketa kolektiboa ere.

Buru diren emakumeen gaikuntzaren kasuan gertatu denaren antzera, komunitate bakoitzeko 3 agintarik parte hartu dute sindikatueta programan, eta esplizituki eskatu zaie kasu bakoitzean gutxienez emakume agintari batek parte hartzea. Hortaz, 50 gizon eta 30 emakume parte hartu dute 16 gaikuntza lantegietan. Lantegi horiek ere aurretik aipatutako 4 modulutan antolatuta egon dira. Eskakizun hori oso erabaki egokia izan da, aukera ematen baitie gaur egun karguak betetzen dituzten emakumei kargu horien jardun eraginkorrean aplikatu ahal izango dituzten ezagutza berriak barnertzeko.

Gizonezko zein emakumezko agintariak nabarmendu dute interes handia dutela antolakuntzako eta plan-gintzako gaikuntza jasotzeko, hartara hobeto jakingo baitute zein diren euren funtzioak eta nola bete ditzaketen. Bestalde, emakumezko agintarietzat funtsezkoa izan da ekitatearen eta eskubideen gaiak lantzea, euren parte hartzeko eskubidea ezagututa hura betetzea aldarrika baitezakete. Senarraren desadostasunaren ondorioz emakumezko agintari batzuek gaitzeko mugak izan badituzte ere, gizonezko agintariak genero ekitatearen eta eskubideen gaien garrantzia azpimarratu dute, uste baitute gai horiek gizonezkoen eta emakumezkoen arteko elkarbizitza hobetzen dutela, bai familia barruan, bai komunitatean.

Sindikatueta gaikuntza 2 lantegitan garatu da, eta haren helburu nagusia izan da genero ekitatean oinarritutako partaidetza sustatzea, esate baterako emakumeak sindikatueta egituretan sartzea eta emaku-



Sindikatueta agintariak, taldean lanean formakuntza lantegi batean (Centro Ayni)

meek udalerrietako UPOetan egindako eskariak eta proposamenak bideratzea.

Buru diren emakumeekin egindako moduan, Ayni Zentroak **zuzeneko laguntza eman die sindikatuerei ere**, hedapen lantegien bitartez eta baita sindikatuen biltzarretan ere.

Zuzeneko laguntza hori funtsezkoa izaten ari da emakumeak afiliatzea, haien iritziak eta proposamenak aintzat hartzea eta haiek karguetarako hautatzea garrantzitsua dela azpimarratzeko. Gizonezko zein emakumezko agintarien ustez, zuzeneko laguntza hori erabilgarria da, halaber, boliviarrak hobeto ezagutzeko eta erabiltzen jakiteko, horiek komunitateetan ere aplikatu behar baitituzte. Emakumezko agintariak, modu espezifikoan, zuzeneko laguntza horrek euren funtzioak betetzeko motibazioa eta babesa eskaintzen dizkiela nabarmendu dute.

Programa amaituta, parte hartu duten 28 komunitateek emakumeen partaidetzari buruzko arau hauek sartu dituzte:

- Sindikatuaren Egitura emakume zein gizonek osatuko dute, eta genero ekitatea, parekotasuna eta txandakatzea errespetatuko dira, Estatu Plurinazionaleko Konstituzio Politikoaren arabera.
- Sindikatuetan senar-emazteek afiliatu behar dute, hau da, senarrak eta emazteak edo bizikideak. Hartara, haietako bat ez badago, dagoenak bere gain hartuko du ardura osoa.
- Karguak betetzeko “zorrozki aintzat hartuko dira Estatuko Konstituzio Politikoan ezarrita dauden genero ekitatea, parekotasuna eta txandakatzea”.

Bildutako erregistroen arabera, 25 sindikatu gutxienez 2 emakume jarri dituzte garrantzizko karguetan; eta gainerako 3 sindikatuetan emakumeak afiliatzen hasi dira, gerora karguak bete ahal izateko.

Sindikatuaren urteko lan planei dagokienez, komunitate guztietan abiarazi dituzte genero ekitatea sustatzera bideratutako ekintzak, honako hauek, besteak beste: indarkeriaren kontrako borrokarako batzordeei babe-



Udal gobernuetako agintariak, formakuntza lantegi batean parte hartzen (Centro Ayni)

sa ematea; gizonak eta emakumeak afiliatzea; gizonak zein emakumeak eskubideen eta betebeharren arloan gaitzea, eta emakumeen eta emakume elkarten proposamenak aintzat hartzea.

Programa ebaluatu ostean, ezinbestekotzat jo da sindikatueta gizonazko eta emakumezko agintariei zuzeneko laguntza eskaintzen jarraitzea, batetik, kargu horiek txandakatu egiten dituztelako, eta bestetik, gizonazko batzuek ez dutelako nahi emakumeek sindikatueta parte hartzea.

Sindikatueta lanarekin identifikatutako beste erronka bat zera da, sindikatueta estatutueta sartu berri dituzten arauak gauzatzea eta erakundetzea.

Sindikatuetaekin egin den moduan, udal gobernuetaekin ere lan egin da, generoaren ikuspegia sar dezaten euren egitura organikoan eta kudeaketarako zein funtzionamendurako tresnetan, eta horretarako ere gaikuntza- eta zuzeneko laguntza- eta estrategia erabili da.

Agintariei eta funtzionarioei genero ekitatearen gaineko gaikuntza eman zaie, plangintzako eta udal kudeaketako prozesuetan ikuspegi hori aintzat hartu ahal izateko. Helburu hori lortzeko, 3 udalerrieta bakoitzean 6 lantegi antolatu dira. Lantegi horietan

146 funtzionario eta zinegotzik parte hartu dute, 58 emakume eta 88 gizon.

Prestakuntza hori jaso ostean, udal taldeek ikusi dute biztanle guztien eskaerei erantzuten dietela, emakume eta haien elkarten eskaerak lehenesteko inolako irizpiderik erabili gabe, eta gainera ez dutela berriazko aurrekonturik genero ekitatea sustatzea xede duten ekintzak gauzatzeko.

Programa egin ostean, 3 udalerrieta UGOek (Udal Gutun Organikoak) onartu dituzte genero berdintasunaren, ekitatearen eta generoaren zeharkakotasunaren printzipioak; aukera edo/eta genero berdintasunaren ikuspegia sartu dute, zeinetan jasota dauden emakume politikari, gizartean eta ekonomian parte hartzea onartu eta sustatzen duten arauak; indarkeria pairatzen duten emakumeen eskubideak eta babesa bermatzeko arauak ere sartu dituzte, eta baita beste arau batzuk ere, honako hauek proposatzen dituztenak, besteak beste: generoari lotutako gaiei erantzuteko udal arlo bat sortzea, emakumeen proiektuentzako aurrekontu funts bat sortzea, buru diren emakumeak gaitzea nahiz prestatzea eta emakumeen behar espezifikoagoei erantzuteko zerbitzuak hobetu



Emakume zinegotzi bat, taldeko lan baten ondorioak azaltzen (Centro Ayni)

tzea (hezkuntzaren arloan, osasunaren arloan, ekoizpeneko jardueretan, indarkeria kasuetan).

3 udal gobernuetako bakoitzak Genero Batzorde bat du, eta batzorde horietako bakoitzak programako taldearen aholkularitza jaso du bere lan egitasmoa presatzeko.

Lan egitasmo horiek barne hartzen dituzte, besteak beste, emakumeari begirako diskriminazioa desagerrarazteko sentsibilizazioa eta gaikuntza, eta haren partaidetzaren sustapena; emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazioa, gaikuntza eta sustapena; eta emakumeentzako ekoizpen proiektuen sustapena. Camargon, programa honekin gauzatutako lanari esker, genero indarkeriari buruzko udal lege bat prestatu dute.

Beharrezkotzat jo da funtzionarioak gaitzen jarraitzea, generoaren ikuspegia euren funtzioen jardunean barneratzea lortzeko; izan ere, generoa emakumeekin bakarrik lotzen dute oraindik, edo zenbait gairekin

bakarrik, adibidez emakumeen kontrako indarkeriarekin.

Zuzeneko laguntzaren bidez, UPOetan sartu beharreko proposamenak definitu, prestatu eta aukeratu dira. Udal taldeek jakinarazi dute Ayni Zentroaren laguntza jasotzen jarraitu nahi dutela. San Lucaseko udal gobernuak, esate baterako, zentroaren laguntza eskatu du Garapen Hitzartuko Plana eguneratzeko.

3. esku-hartze ildoak

Balio eta jarrera berriak dituzten gizon eta emakumeak genero ekitatean parte hartzeko.

Ildo hau garatzeko, “**Hedapenerako Komunitate Lantegiak**” gauzatu dira, 28 komunitateetako gizon eta emakume ororentzat irekiak. Lantegi horien helburua izan da familien egunerokotasunean genero ekitatea sustatzea, eta gizonentzat eta emakumeentzat bereizita antolatu dira: emakumeek gaikuntza jaso duten bi-

tartean, gizonak arduratu dira ekoizpen lanez, etxeko lanez eta seme-alaben zaintzaz, eta gero alderantziz.

Emakumeentzako hedapen lantegiak buru diren emakume gaituek eman dituzte, eta gizonentzako lantegiak, berriz, sindikatueta gizonetako agintari gaituek. Bi taldeek jaso dute Ayni Zentroko taldearen laguntza, eta buru diren emakumeek eta gizon agintariek komunitateko gainerako kideei transmititu dizkiete prestakuntza saioetan, topaketetan eta laguntzaile gisa jardundako aldietan barneratutako ikaskuntzak. Eurek jasotako hezkuntza teknika eta tresna berberak erabili dituzte horretarako.

Lantegi horietan parte hartu duten emakumeek buru direnek baino interes handiagoa adierazi dute genero ekitateari eta eskubideei buruzko gaietan. Desberdintasun horren arrazoa agerikoa da: bakartuago bizi dira eta autoestimu txikiagoa dute. Hala ere, ekoizpen arloko gaietan gaitzeko interesa ere badute.

Gizonezkoentzako hedapen lantegiak prestakuntzarako eta elkarriketarako espazioak izan dira, eta generoari

buruz hitz egin ahal izan dute euren ikuspegitik. Zalantzarik gabe, gizonak emakumeak aintzat hartzeko funtsezko faktoreetako bat izan dira.

Lantegietan parte hartu dutenen ustez, genero ekitateak zerikusia du gizonak eta emakumeak elkarrekin “ongi bizitzearekin”, eta horrek oinarritzat du harreman harmoniatsu bat, elkarriketari eta zereginak betetzeko koordinazioari esker eraikia. Eta zeregin horiek barne hartzen dituzte etxeko zereginak, ekoizpenaren alderdikoak zein ugalketaren alderdikoak, eta baita komunitateko nahiz distrituko erabakiak hartzeko espazioetako zereginak ere.

Gizonengan onespene onak izan duen gai berritzaile bat maskulinitate berriena da. Horri esker, euren jarrera eta jokabide matxisten jatorria identifikatu ahal izan dute, eta ulertu dute jarrera eta jokabide horiek ez datozela bat gauzen ordena naturalarekin, etxean, eskolan eta komunitatean ikasitakoak direla eta, hortaz, aldatu eta desagerrarazi egin daitezkeela, seme-alabak ekitatearen kulturen oinarrituta hezten badituzte.



Hainbat gizon eta emakume, elkarrekin jakiak prestatzen (Centro Ayni)



Neska gazte bat, ahuntzak zaintzen dituen bitartean irrattia entzuten
(Zabalketa)

Programa osoan 112 lantegi egin dira, 4 komunitate bakoitzean, eta, batez beste, 28 komunitateetako 624 emakumek eta 509 gizonen parte hartu dute.

Zenbait gizonen ez dute parte hartu hedapen lantegietan: batzuek ez dute interesik generoaren gaiarekiko, edo uste dute soilik emakumeen kontua dela; beste batzuek ez zaie ongi iruditu gizonen eta emakumeen bereizita eskaintzea.

Ebaluazioan jasotako iritziaren arabera, sindikatuetakoz gizonen agintarientzako prestakuntza lantegiak eta gizonen hedapen lantegiak mugatu samarrak izan dira kopuruan, eta proposatu da halako gehiago antolatzea, bai prestakuntzakoak, bai hedapenekoak.

3. esku-hartze ildoaren baitan beste jarduerak ere egin da, **herriar eskubideak ezagutzera emateko eta haiekiko sentsibilizazioa sustatzeko**. Irratia, iragarkiak, elkarrizketak eta beste hainbat hedabide erabili dira horretarako, bai kitxuatzaileak, bai gaztelaniazkoak.

“

Gure etxean betetzen ari gara genero ekitatea, ongi bizitzea baita hori. Nire kasuan, nik ezin dut emaztea diskriminatu etxean, eta hark ere ezin nau ni diskriminatu. Gure seme-alabak ere ongi tratatu behar ditugu. Emazteak nekazaritza lanetan laguntzen dit, eta nik ere batzuetan laguntzen diot sukaldean; emaztea etxean ez dagoenean, nik prestatzen dut janaria...”, “Komunitatean, emakumeek karguak bete ditzakete, gizonen antzera”..., “Munizipalitatean, gizonen eta emakumeek bete ditzakete karguak, tartekatuta”

Víctor Paco Arenas

idazkari nagusia, Torre de Linares komunitatea

Positibotzat jo da irrattia sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako bitarteko gisa erabiltzea, eta beharrezkotzat jo da haren hedadura zabaltzea, pertsona gehiagorengana irits dadin.

Halaber, **sindikatuaren estatutu berriak zabaldu eta ezagutzera eman zaizkio gizarteari**, eta emakumeek sindikatuaren barruan izan beharreko partaidetzari buruzko artikuluei arreta berezia eskaini zaie.

Arau berria ezagutzeak konfiantza eta segurtasun handiagoa ematen die emakumeen parte hartzeko eskubidea aldarrikatu eta babesteko. Halaber, gizonen ere ezagutzen dituzte arau berriak, eta errespetatu egin behar direla onartzen dute.

Jarduerak hori egokia eta eraginkorra izan da, baina beharrezkoa da ez etetea; izan ere, txandakatze handia dago sindikatuetakoz gizonen eta emakumeen artean, eta gainera zenbait gizonen eta emakumeen taldek ez dituzte estatutu horiek ezagutzen.



Maisu bat eta maistra bat, euren ikasleek genero ekitatea sustatzeko egindako lanak erakusten (Centro Ayni)

Emakumeen kontrako indarkeria kasuei erantzuteko eta horrelakoak desagerrarazteko ere lan egin da. Horretarako, **arlotan lan egiten duten 3 erakundeak sendotu dira eta haien arteko koordinazioa hobetu da. Hauek dira erakunde horiek: Indarkeriaren Aurkako Borrokarako Batzordeak (IABB), Udalaren Lege Zerbitzu Integralak (ULZI) eta Indarkeriaren Aurkako Borrokarako Indar Berezia (IABIB).**

Erakunde horiek sendotzeko, emakumeei indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko lege integralari buruzko gaikuntza jaso dute; generoari eta indarkeriari buruzko lantegiak egin dituzte; euren funtzioak betetzeko babesa jaso dute, baita laguntza ere, kudeaketarako tresna batzuk erabiltzen ikasteko, hala nola lan egitasmoa, indarkeria kasuak erregistratzeko fitxak eta akten liburua, non erregistratuta geratzen diren barneko bilerak eta biktimak eta erasotzaileak sinatutako akordioak.

Erakunde horien arteko koordinazioa sustatzeko, bilerak eta topaketak antolatu dira, eta prestakuntza lantegietan ere elkartu dira. Koordinazio hori komunitateetan bertan gauzatu denez, biztanle guztientzako lan saioak antolatu dira. Horren guztiaren ondorioz, genero indarkeriaren arloan eskumenak dituzten erakunde horien arteko harremanak sendotu egin dira.

Aurrera egiten jarraitzeko asmoz, beharrezkoa izango da udal gobernuak borondate politikoa izatea euren politikan indarkeriaren kontrako borroka lehenesteko eta baliabide gehiago bideratzeko erakundeek behar bezala funtziona dezaten eta komunitateei erantzun diezaieten.

3. ildo estrategiko honen baitan, halaber, lehen eta bigarren hezkuntzako 13 ikastetxetako 76 maisu-maistrek lan espezifiko bat egin da. Genero ekitatearen eraikuntza prozesu horretan parte hartu dute.

Haiekin gauzatutako jarduera bat 2 eguneko lantegi trinko bat izan da, **irakasle horiei generoaren ikuspegiari lotutako gaikuntza eta zuzeneko laguntza eskaintzeko**. Gaikuntza saio horien edukiak eta garapena pedagogiako aditu batek eta generoko aditu batek diseinatu dituzte, eta "Eginez ikasi" metodologia erabili dute.



Irakasleak, formakuntzako topaketan partaidetza egiaztagiria jasotzen (Centro Ayni)

Gaikuntza saio horiek garatzeko, hitzarmenak sinatu dira 3 udalerrietako (Culpina, San Lucas eta Camargo) distrituko hezkuntza zuzendaritzekin; hortaz, babes formala izan dute.

Irakasleek interes handiz parte hartu dute gaikuntza saioetan, eta generoaren gaiarekiko sentsibilizazio askoz handiagoa adierazi dute. Oso garrantzitsua iruditzen zaie hezkuntza zereginetan zeharkako irizpide gisa sartzea, bai lehen hezkuntzan, bai bigarren hezkuntzan.

Irakasleek ezagutza berri horiek erabili dituzte hezkuntzarako materialak prestatzeko eta generoaren ikuspegia aintzat hartzen duten ikasgelako planak diseinatzeko. Hona hemen zenbait adibide: hizkuntza inklusiboa erabiltzea; irudi didaktikoetan mutilen eta nesken protagonismo berbera sustatzea; genero ekitatean oinarritutako mezuak dituzten abesti, ipuin eta poema berriak sortzea, eta ikasleek genero ekitatearekin lotuta egindako lanak erakusteko azokak antolatzeta, gurasoen artean sentsibilizazioa sustatzeko.



Matematika ikasten, lehen hezkuntzako ikasgela batean (Centro Ayni)



Neska-mutilak, elkarrekin jolasean jolasgaraietan (Centro Ayni)

Baina irakasleek alderdi pertsonalean ere aldatu dute euren jarrera eta jokabidea, eta barnetegi gisa funtzionatzen duten eskoletako maisuak arropa garbitzen, janaria prestatzen eta lehen soilik emakumeek egiten zituzten beste zenbait jarduera egiten hasi dira. Era berean, maistrak eskoletako bio-baratzeak zaintzen hasi dira. Maisuek zein maistrek ikasleekin batera gauzatzen dituzte jarduera horiek, eta rol trukea eta zereginen partekatzea sustatzen dute, talde mistoetan lan eginez. Era berean, neskek ikasgelan eta ikastetxean gehiago parte hartzea lortu dute: lanak aurkezten dituzte, taldeetako buru dira eta karguak betetzen dituzte.

Ebaluazioan, maisu-maistrek euren ikasleen eta Euskal Herriko ikasleen arteko trukea sustatzea proposatu

dute; hartara, ikasleek beste errealitate eta esperientzia batzuk ezagutuko dituzte, eta ikasten jarraitzeko motibazio handiagoa izango dute. Irakasle taldeak teknologia berriak eta Internet, Facebook nahiz antzeko tresnak erabili nahi ditu horretarako. Ebaluazioan aipatu duten beste alderdi bat zera izan da, datozen urteetan eskoletan sartuko diren maisu-maistra berrien gaitasunak indartzeko beharra, genero ekitatea sustatzen jarraitu ahal izateko.

Eskola guztietako hezkuntza kontseiluek ere parte hartu dute genero ekitateari eta indarkeriari buruzko preskakuntza lantegietan, eta, partaidetza horren emaitza gisa, haur guztien asistentzia sustatu eta zorrozkia zaindu da. Gainera, irakasleen eta familien arteko koordinazioa asko hobetu da.